



EROSKI FUNDAZIOA

**2021EKO JARDUEREN MEMORIA
ETA 2022KO EKINTZA PLANA**

Data: 2022/07/15

Bertsioa: 1

Edukia

1.	EROSKI FUNDAZIOA.....	3
1.1.	Fundazioaren jatorria.....	3
1.2.	Misioa.....	3
1.3.	Erakundearen egitura	3
1.4.	Fundazioaren jarduerak.....	9
1.5.	Harremanetarako.....	9
2.	2021EKO JARDUEREN MEMORIA.....	10
2.1.	Informazio produktuak	10
2.1.01.	Jardueraren identifikazioa.....	10
2.1.02.	Jardueraren deskribapen xehea	10
2.1.03.	Helburuak eta adierazleak	10
2.2.	Kontsumitzailearen prestakuntza	11
2.2.01.	Jardueraren identifikazioa.....	11
2.2.02.	Jardueraren deskribapen xehea	11
2.2.03.	Aurreikusi diren helburuak eta adierazleak	12
3.	2021EKO EKINTZA PLANA.....	13
3.1.	Informazio produktuak	13
3.1.01.	Jardueraren identifikazioa.....	13
3.1.02.	Jardueraren deskribapen xehea	13
3.1.03.	Aurreikusi diren giza baliabideak	14
3.1.04.	Aurreikusi diren onuradunak edo erabiltzaileak.....	14
3.1.05.	Aurreikusi diren helburuak eta adierazleak	14
3.3.	Kontsumitzailearen prestakuntza	15
3.3.01.	Jardueraren identifikazioa.....	15
3.3.02.	Jardueraren deskribapen xehea	15
3.3.03.	Aurreikusi diren onuradunak edo erabiltzaileak.....	16
3.3.04.	Helburu eta adierazle aurreikusiak.....	16

1. EROSKI FUNDAZIOA

1.1. Fundazioaren jatorria

EROSKItik urteko irabazien %10 itzultzen dizkiogu gizarteari, gizartearentzat eta herritarrentzat interesa duten hainbat jarduera landuz. EROSKI Taldea Fundazioa arduratzen da inbertsio hori kudeatzeaz.

Fundazioa 1997ko abuztuaren 5ean eratu zen, eskritura publiko baten bidez.

1.2. Misioa

Hauexek dira Fundazioaren helburuak:

1. Kontsumitzaileen bidezko interesak sustatu eta babestearekin zerikusia duten jarduerak finantzatzea.
2. Kontsumo iraunkorra laguntzeko ekintzak bultzatzea.
3. Kontsumoaren arloan ikertzea eta, bereziki, kontsumitzaileen osasunarekin eta segurtasunarekin zerikusia duten gaietan.
4. Bizi ohitura osasungarriak sustatzen dituzten ekimenetan parte hartzea.
5. Kulturarekin lotutako jarduerak sustatzea.
6. Kontsumitzaileen sustapenarekin lotutako argitalpenak egitea, bai gure komunikabideetan eta bai kanpokoetan. Jarrera kontsumeristak eta ingurumenaren aldekoak zabaltzea egokituz jotzen diren bitartekoen bidez.
7. Banaketa komertzialaren sektorean ikerketa eta garapen azterlanak egin daitezen bultzatzea.
8. Langileen prestakuntza sustatzea gaitasun profesionala eta pertsonala hobetzearekin zerikusia duten alderdi guztietan.
9. Fundazioko kideek gizarte erantzukizunaren arloan egindako ekarpenak gizarteari jakinarazteko moduak sustatzea.
10. Enplegua sortzeko jarduerak diruz laguntzea.

1.3. Erakundearen egitura

Fundazioaren gobernantzari eta kudeaketari dagokion guztia Estatutuetan arautzen da, eta berariaz jasotzen da Patronatuko karguak doakoak direla. Gobernu organo horrek kontuak eman eta aurrekontuak aurkeztu behar dizkio Babesletzari.

Patronatu gorenak Fundazioaren jarduerak kudeatzen ditu, irizpide hauek kontuan hartuta: onuradunekiko inpartzialtasuna eta diskriminaziorik eza, eta bere helburuak lortzeko independentzia, eraginkortasuna eta erantzukizuna. Horretarako, erakundearen beraren ekimenez jarduten du edo lankidetzaz hitzarmenak eginez instituzioekin, GKEekin, elkarteekin eta bestelako entitateekin.

2022. urtean aldaketak izan dira Patronatuaren osaeran. Agustin Markaidek Rosa Carabeli eman zion lehendakari kargua; harrezkero, bera da EROSKI Taldeko zuzendari nagusi berria. Era berean, Gotzon Elizburu kidearen lekua Jose Ramon Anduagak hartu du.

Eroski Fundazioaren Patronatua

Kargua Patronatuan	LEHENDAKARIA	
Izena	ROSA Mª CARABEL DI PAOLA	
Kargua EROSKI Fundaziotik kanpo	EROSKI Taldeko zuzendari nagusia	
Profil akademikoa	• Enpresa Zientzietan diplomaduna eta lizentziaduna. • Enpresa Administrazioan eta Zuzendaritzan Masterra Vigoko Negozio Eskolan. • Advanced Management Program Masterra IE Business School-en.	
Lan profila	• 1994an Vegalsan hasi zen lanean, non Zuzendaritza Nagusiaren barruan jardun zuen eta gero Marketineko zuzendari gisa. • 2004tik hainbat kargu izan ditu EROSKIn: Frankizietako eta Autozerbitzuetako zuzendaria supermerkatuen negozioan, EROSKI City-ko eta EROSKI Center-eko zuzendaria iparraldean eta Taldeko frankizien zuzendaria, Ekonomia eta Finantza zuzendaria eta Sareko zuzendari nagusia. • 2022an EROSKI Taldeko Zuzendaritza Nagusia hartu du, eta gaur egun kargu hori dauka. • Administrazioaile bakar eta solidarioa da, eta EROSKI Taldeko sozietateetako administrazio kontseiluko kidea.	

Kargua Patronatuan	IDAZKARIA	
Izena	LEIRE MUGERZA GARATE	
Kargua EROSKI Fundaziotik kanpo	• EROSKIko Kontseilu Errektoreko lehendakaria • Hezkuntza arloko langilea	
Profil akademikoa	• Industriako Ingeniaritza Teknikoa Mondragon Unibertsitatean. Espezialitatea: Mekanika (Antolaketa sistemak) • 2001-2002 Enpresa Kooperatiboen Zuzendaritzako Masterra (Otalora)	

Lan Profila (Leire Mugerza, Patronatuko idazkaria)	• 2012 – Gaur egun. Eroski S. Coop-eko Kontseilu Errektoreko lehendakaria eta Mondragon Korporazioko Batzorde Iraunkorreko kidea • 2010 martxoa-gaur egun. Lea Artibai Ikastetxeko irakaslea eta Azaro Fundazioko batzordekidea • 2007ko urtarrila-2010eko martxoa. Lea Artibai Ikastetxeko zuzendaria eta Azaro Fundazioko lehendakaria. Deskarguak Kontseilu Errektorean, Batzorde Betearazlean eta Kontseilu Errektorean. • 2006-2007ko urria. Eika S. Coop. Eika Taldeko Industria eta Sistemen zuzendari izendatua. Eika Taldea (Etxebarria, Txekia, Mexiko eta Polonia). • 2003ko martxoa-2007ko maiatza Eika S. Coop. Kontseilu Errektoreko lehendakaria. Gizarte Kontseiluko lehendakari funtzioak ere bere gain hartzen ditu. • 2003ko urtarrila. Eika S. Coop. Kalitate eta Sistemen zuzendaria. • 2001eko ekaina Eika S. Coop. Kalitate zuzendaria eta Zuzendaritza Kontseiluko kidea. • 2000ko urria-2001eko ekaina Eika S. Coop. Kudeaketa sistemen arduraduna (ez dago kalitate zuzendaririk, zeina gerentziaren mende baitago). • 99ko uztaila-2000ko iraila. Eika S. Coop. Hobekuntza Jarraituko teknikaria.
--	--

Kargua Patronatuan	KIDEA	
Izena	MIKEL LARREA AZPEITIA	
Kargua EROSKI Fundaziotik kanpo	EROSKI Taldeko Komunikazio eta Harreman Korporatiboetako zuzendaria	
Profil akademikoa	• Ekonomia eta Enpresa Zientzietan lizentziaduna	
Lan profila	• 29 urteko lan ibilbidea EROSKIn, horietatik 21 Logistika arloko erantzukizuneko karguak betez eta 8 Taldearen Idazkaritza Nagusian. Gaur egun, Komunikazio eta Harreman Korporatiboetako zuzendaria da. • HISPACOOOP Kontsumoko Kooperatiben Espainiako Konfederazioko lehendakaria. • Euskadiko Kooperatiben Konfederazioko eta Kooperatiben Kontseilu Goreneko kidea. • ERKAR-LANeko lehendakariordea. • Basque Culinary Centerreko patronatuko eta Batzorde Betearazleko kidea. • Azti zentro teknologikoaren patronatuko kidea. • Leartiker-eko Kontseilu Errektoreko kidea. • ESANeko Aholku Batzordeko kidea.	

Kargua Patronatuan	KIDEA	
Izena	JOSE RAMON ANDUAGA AGIRRE (<i>independentea</i>)	
Kargua EROSKI Fundaziotik kanpo	Erretiratua	
Profil akademikoa	• Enpresa Zientzietan lizentziaduna. • Enpresa Administrazioan eta Zuzendaritzan Masterra Euskal Herriko Unibertsitatean.	
Lan profila	• Mondragon taldeko enpresa kooperatiboetan egin du lan ibilbidea, hasiera batean Fagor eta Ulma taldeko enpresetan, barne-ikuskatzaile eta Ekonomia eta Finantza zuzendari gisa. • 2015 eta 2022 urteen artean EROSKI Taldeko Ekonomia eta Finantza zuzendaria izan da, eta EROSKI Taldeko hainbat sozietatetako administratzaile bakar, solidario eta administrazio-kontseiluko kide.	

Kargua Patronatuan	KIDEA	
Izena	FELIX MARTIN GALICIA (independentea)	
Kargua EROSKI Fundaziotik kanpo	Kontsumitzaile eta Erabiltzaile Kooperatiben Espainiako Konfederazioko idazkari nagusia (HISPACOOOP).	
Profil akademikoa	Ekonomia eta Enpresa Zientzietan lizentziaduna Madrilgo Complutense Unibertsitatean.	
Lan profila	- Hispacooop-en egin du bere lan ibilbidearen zati handi bat. Gaur egun erakunde horretako idazkari nagusia da (2010. urteaz geroztik). Aurrez, idazkari teknikoa izan zen eta Harreman Instituzionalen arduraduna ere bai. - Kontsumitzaile eta Erabiltzaileen VI. Kontseiluko lehendakariordea. - Kontseiluko ordezkaria Kontseilu Ekonomiko eta Sozialean. - Kontseiluaren ordezkari izan da hainbat erakunde eta instituziotan, adibidez Herri Lan eta Garraio Ministerioko Telekomunikazioen Aholku Batzordean, Argindarraren Aholku Kontseiluan, eta abar. - Kontsumitzaileen Kontseiluko kidea da eta HISPACOOOPek organo horretan duen bozeramailea 1996az geroztik. - Madrid-Sur Fundazioko idazkari nagusia izan zen 2000. urtetik 2004ra.	

Kargua Patronatuan	KIDEA	
Izena	M. ASUNCION BASTIDA SAGARZAZU	
Kargua EROSKI Fundaziotik kanpo	EROSKI Taldeko zuzendari komertzialaren albokoa eta Tokiko Produktuaren zuzendaria	
Profil akademikoa	Ekonomia eta Enpresa Zientzietan lizentziaduna Deustuko Unibertsitatean. Finantzetako espezialitatea, Brest-eko Merkataritzako Goi Ikastegian egina, Bretainian (Frantzia).	
Lan profila	2014 – Gaur egun. EROSKI Taldeko zuzendari komertzialaren albokoa eta Tokiko Produktuaren zuzendaria. 2008 – 2013. Salmenta Puntuetako Prozesu eta Sistemen zuzendaria EROSKI Taldeko Prozesu eta Sistemen arloaren barnean. 2004 – 2008. Pertsonen arduraduna EROSKI Taldeko E6000 Hipermerkatuetan. 1998 – 2004. Pertsonen Eskualdeko arduraduna Euskadiko E6000 Hipermerkatuetan. 1996 – 1998. Elikagaietatik Kanpoko Atalburua Azkoitiko EROSKI hipermerkatuan. 1995 – 1996. Atalburua Kiabin, modako banaketa kate frantziarrean.	

Kargua Patronatuan	KIDEA	
Izena	GABRIELA JARA GONZALEZ MARQUEZ (<i>independentea</i>)	
Kargua EROSKI Fundaziotik kanpo	Komunikazioko, Gizarte Erantzukizun Korporatiboko, Nazioarteko Harremanetako eta bezeroen arloko zuzendaria Vegalsan.	

Kargua Patronatuan	KIDEA	
Izena	SONIA ORTUBAI BALANZATEGI	
Kargua EROSKI Fundaziotik kanpo	• ABANTAIL S. Coop-eko zuzendari kudeatzailea. • EROSKIko Kontseilu Errektoreko idazkaria	
Profil akademikoa	• Goi mailako ingeniaria Naoned-eko École Nationale Supérieure De Mécanique ikastegian, Frantzian. Mekanikako espezialitatea, Informatikako aukera. • Ingeniari teknikoa Mondragon Goi Eskola Politeknikoan (Mondragon Unibertsitatea). Espezialitatea: Mekanika Aukera:	

	Makina-Erremintako Diseinua eta Eraikuntza
Lan profila (Sonia Ortubai, Patronatuko kidea)	• 2008 – Gaur egun. ABANTAIL S. Coop-eko zuzendari kudeatzailea. • 2010 – Gaur egun. ISEA S. Coop-eko Kontseilu Errektoreko kidea; izaera pribatuko eta irabazi asmorik gabeko berrikuntza eta ekintzailatza zentroa da, Enpresa Zerbitzuetan espezializatua eta MONDRAGON Korporazioko MISE dibisioan sartua. • 2003: LKS S. Coop: kooperatibako lehen Kontseilu Sozialeko kidea. • 2004-2008. ABANTAIL S.L. spin-off-aren sortzaileetako bat eta zuzendarikidea. • 1996-2004. LKS S.Coop. - Prozesu eta Teknologien arloko aholkularia. • 1994-1996. FAGOR SISTEMAS S.Coop. - Produkzio Antolakuntzako aholkularia. • 1991-1996. FAGOR SISTEMAS S.Coop. - Ekoizpen Kudeaketako Aholkularia. • 1988-1989. Ingeniaritza Teknikoko ikasketekin bateratuz, CAD sistemen irakaslea IRAUNKOR Etengabeko Prestakuntza Zentroan, MONDRAGON GOI ESKOLA POLITEKNIKOAREN barnean. • 1986-1989: Mondragon GOI ESKOLA POLITEKNIKOA "Jose M^a Arizmendiarririetak" S.Coop.-eko Kontseilu Errektoreko kidea, ikasleen ordezkari gisa. Lau urteko aldia 1985eko abenduko eta 1990eko urtarrileko batzarren artean.

Zuzendari nagusia

Alejandro Martinez Berriochoa da EROSKI Fundazioaren zuzendari nagusia, eta egindako jardueren arduradun funtzionala ere bada.

EROSKI Fundazioan duen kargua	Zuzendari nagusia	
Izena	ALEJANDRO MARTINEZ BERRIOCHOA	
Kargua EROSKI Fundaziotik kanpo	• EROSKIko Osasun, Iraunkortasun eta Kalitate arloko zuzendaria	
Profil akademikoa	• Zuzenbidean lizentziaduna • Filologia Hispanikoan doktorea	

Lan profila (Alejandro Martinez, zuzendari nagusia)	• Banaketa komertzialaren arloan ibili izan da beti lanean; Continente Zentro Komertzialetan hasi zen 1995. urtean, eta EROSKIIn gero, 1997. urtetik aurrera. Bi hamarkadatik gorako lan ibilbidean hainbat ardura izan ditu: Marka Propioen arduraduna, Ehungintzako zuzendaria eta Erosketen zuzendaria, gaur egun dituen ardurak hartu arte: Osasun eta Iraunkortasun zuzendaria Marketin Estrategikoaren Arloan eta EROSKI Fundazioko zuzendari nagusia. • Intercoop Ltd-ko lehendakariordea izan da. (nazioarteko erosketen zentrala da, eta Eskandinaviako herrialdeetako eta Italiako banatzaile liderrei ematen die zerbitzua eta EROSKIri ere bai). • Euskadiko Kontsumo Kooperatiben Federazioko lehendakaria (FECOE). • Euskadiko Kooperatiben Goren Kontseiluko aholkularia (CSCE). • Euskadiko Kooperatiben Konfederazioko kidea (Konfekoop). • Elkar Lan S. Coop.-eko lehendakariordea (kooperatibismoa sustatzeko). • Nazio Batuen Munduko Itunaren Espainiako Sarearen Batzorde Betearazleko kidea. • Enpresaren Gizarte Erantzukizuneko Aldizkariaren Aholku Batzordeko kidea. • Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordeko kidea. • AECArek Gizarte Erantzukizuneko batzordeko kidea. • Basque Ecodesign Centerreko Batzorde Betearazleko kidea.
---	--

1.4. Fundazioaren jarduerak

Eroski Fundazioak, berezko helburuen barruan, honako jarduera hauek lantzen ditu:

- (i) **Informazio produktua:** Eroski Consumer aldizkaria argitaratzea eta kontsumo arloko informazioa zabaltzearekin lotutako eduki digitalak prestatzea, publiko orokorrari zuzenduta, doan.
- (ii) **Kontsumitzailearen prestakuntza:** kontsumo arduratsuen arloan jendea prestatzeko hainbat ekimen abiaraztea.

1.5. Harremanetarako

Fundazioaren egoitza Elorrión dago (Bizkaia), helbide honetan: San Agustín auzoa, z/g. Eroski Fundazioarekin loturiko eskaerak eta kontsultak jasotzeko, helbide elektroniko hau ere badugu: info@fundacioneroski.es.

2. 2021EKO JARDUEREN MEMORIA

Jarraian, 2021eko ekitaldian egindako jarduerak zehazten dira:

2.1. Informazio produktuak

2.1.01. Jardueraren identifikazioa

Jardueraren izena	Informazio produktuak
Jarduera mota	Jarduera propioa (merkataritzaren arlotik kanpokoa), helburu soziala betetzea
Jardueraren identifikazioa sektoreka	Kontsumitzaileen sektorea
Funtzioa	Komunikazioa eta hedapena
Jarduera egiteko lekua	Jarduera, batez ere, Eroski Consumer informazio proiektuaren inguruan egiten da, bai mundu digitalean (Interneten, www.consumer.es kontsumo atariarekin), eta bai mundu fisikoan ere (Consumer Eroski aldizkari inprimatua). Eroski Fundazioaren egoitza sozialetik zuzentzen eta lantzen da Interneteko jarduera, zeina Elorrion baitago (Bizkaia). Mundu fisikoko jarduera (aldizkari inprimatua) Fundazioaren Egoitza Sozialetik zuzentzen eta lantzen da, nahiz eta Espainia osoan gauzatzen den (aldizkaria Estatu osoan banatzen da).

2.1.02. Jardueraren deskribapen xehea

1. Kontsumitzailea informatzeko edukiak sortzea, lantzea, idaztea, maketatzea eta digitalki kudeatzea. Eduki horiek www.consumer.es kontsumo atarian biltzen dira. Doako ataria da, eta lehen aipatu ditugun gaiei buruzko edukiekin batean, Donejakue Bideari buruzkoak ere eskaintzen ditu.
2. Kontsumitzaileari informazioa emateko eta kontsumitzaileek parte hartzeko edukiak dinamizatzea, sare sozialetan horretarako dauden profilen bidez (Facebook eta Twitter).
3. Kontsumitzailearentzako informazio edukiak dinamizatzea, gailu mugikorretarako (tableta eta telefono adimendunetarako) sortu diren aplikazioen bidez.

2.1.03. Helburuak eta adierazleak

Hauek dira jarduera honen helburuak eta adierazleak, eta horiek azaltzen dute zein diren onuradunak:

Helburuak	Adierazlea	Aurreikusia	Gauzatua
Onuradunak (guztira)	Web bisitak + irakurleak	51.437.500	53.495.087
Audientzia (bisitak)	Web atariko bisitak	48.000.000	50.057.587
Espainiako egoiliarren audientzia (bisitak)	Espainiako egoiliarren bisitak web atarian	17.500.000	14.198.410
Aldizkari inprimatuaren audientzia (irakurleak)	Irakurle kopurua	3.437.500	3.437.500

2.2. Kontsumitzailearen prestakuntza

2.2.01. Jardueraren identifikazioa

Jardueraren izena	Kontsumitzailearen prestakuntza
Jarduera mota	Jarduera propioa (merkataritzaren arlotik kanpokoa), helburu soziala
Jardueraren identifikazioa sektoreka	Kontsumitzaileen sektorea
Funtzioa	Beste batzuk
Jarduera egiteko lekua	Jarduera mundu digitalean egiten da (Interneten, www.escueladealimentacion.es atariarekin), eta mundu fisikoan ere bai (aurrez aurreko prestakuntza jarduerak). Eroski Fundazioaren egoitza sozialetik zuzentzen eta lantzen da Interneteko jarduera, zeina Elorrión baitago (Bizkaia). Mundu fisikoko jarduera (aurrez aurreko jarduerak) Fundazioaren Egoitza Sozialetik zuzentzen eta lantzen da, nahiz eta Espainia osoan gauzatzen den.

2.2.02. Jardueraren deskribapen xehea

Kontsumitzaileari kontsumo arduratsuaren inguruko hainbat gairi buruzko prestakuntza emateko kanpainak sortu, landu eta gauzatzea (birtualak, Interneten, eta aurrez aurrekoak, mundu fisikoan), batez ere elikadura osasungarrian, elkartasunean eta ingurumenaren zaintzan oinarrituta.

Era berean, *Hazteko energia* jarduera programarekin jarraitu da ikastetxeetan, Lehen Hezkuntzako ikasleen elikadura orekatua, ohitura osasungarriak eta aisialdi aktiboa sustatzen dituen. Horretarako, materiala egokitu egin da ikastetxeetan erabiltzeko, eta pauso handi-handia eman da digitalizazioan. Aurrez aurreko tailerrei kalte handia egin die COVID-19aren pandemiak, eta ezin izan dira gauzatu, jendea bildu beharra baitzegoen horretarako. Programak laguntzaile garrantzitsuak ditu, hala nola Unicef, Bihotzaren Espainiako Fundazioa, Basque Culinary Center eta WWF (elikadurari buruzko alderdietarako lehen batzuk, haurren eskubidetza jotzen baita, eta ingurumenaren iraunkortasunari buruzko alderdietarako besteak); baditu, halaber, programari atxikitzea erabaki duten ikastetxeentzako beste baliabide batzuk ere. Plan horren emaitza oso ona izan da, ikastetxe askok bat egin dute eta milaka ikaslek jaso

dute prestakuntza. Hezkuntza programak lortu dituen sarien zerrenda aipagarria da oso: gizarte berrikuntzako eta iraunkortasuneko jardunbide egokiak aitortu dizkio 2019ko BTEM sariak, eta lehenago ere baditu beste batzuk: finalista izan da Sari Erantzukideen IX. ekitaldian, 2018an; "Gizarte Erantzukizuneko komunikazio kanpainarik onena gizarte zibilarekin", OCARE Sarien II. edizioan, 2017an (Enpresa Erantzukizunari lotutako Komunikazioaren eta Ekintzaren Behatokia da OCARE); eta 2013. urteaz geroztik lortu dituen dozena erdi aitortza eta sari baino gehiago.

Dozenaka mila kontsumitzailek parte hartu dute kanpaina horietan, eta gainditu egin ditu aurreikuspen guztiak.

Kanpaina horiek behar bezala landu ahal izateko, lankidetza hitzarmenak egin edo berritu ditugu hainbat erakunderekin:

- Basque Culinary Center nabarmentzen da; harekin landu dugu *Hazteko energia* gure Heziketa Programaren zati bat.
- Hainbat akordio eta hitzarmenekin jarraitu dugu: ikastolen Elkartearekin lankidetza hitzarmena; Espainiako diabetikoen Federazioarekin (FEDE); Ikasketa Katalanen Institutuarekin (CCNIEC). Hitzarmen horiei esker, osasuna sustatzeko gure jarduerak hainbat hartzaileterengana zabaltzeko ahal izan ditugu, batez ere haurrengana.

Erakunde horiekin lankidetzan aritzeak aukera eman digu, besteak beste, elikadura osasungarriari buruzko gure prestakuntza-kanpainetan aholkularitza egokia emateko, bai eta haien jarduerak laguntzeko ere, fundazioaren helburuekin bat datozen heinean (nagusiki, osasunari eta elikadura osasungarriari buruzko informazioa zabaltzea kontsumitzaileari).

2.2.03. Aurreikusi diren helburuak eta adierazleak

Hauek dira jarduera honen helburuak eta adierazleak, eta horiek azaltzen dute zein diren onuradunak:

Helburuak	Adierazlea	Aurreikusia	Gauzatua
Prestakuntza kanpainen erabiltzaileak	Kontsumitzaile kopurua	70.000	70.000
Heziketa Planean parte hartu duten ikasleak beren ikastetxeen bidez	Ikasle kopurua	250.000	133.000
Lankidetza hitzarmenak entitateekin	Entitate kopurua	2	7

3. 2021EKO EKINTZA PLANA

Eroski Fundazioak, 2022ko urtarrilaren 13an, 2021eko Jarduera Plan hau aurkeztu zien Patronatuko kideei, urriaren 24ko 1491/2011 Errege Dekretuak ezarritako formatuaren eta ereduaren arabera. Errege Dekretu horren bidez onartu ziren Kontabilitate Plan Orokorra irabazteko asmorik gabeko entitateei egokitzeko arauak eta irabazi asmorik gabeko entitateen jarduera planaren ereduak.

3.1. Informazio produktuak

3.1.01. Jardueraren identifikazioa

Jardueraren izena	Informazio produktuak
Jarduera mota	Jarduera propioa (merkataritzaren arlotik kanpokoa), helburu soziala betetzea
Jardueraren identifikazioa sektoreka	Kontsumitzaileen sektorea
Jarduera egiteko lekua	Jarduera, batez ere, Eroski Consumer informazio proiektuaren inguruan egiten da, bai mundu digitalean (Interneten, www.consumer.es kontsumo atariarekin), eta bai mundu fisikoa ere (Consumer Eroski aldizkari inprimatua). Eroski Fundazioaren egoitza sozialetik zuzentzen eta lantzen da Interneteko jarduera, zeina Elorrion baitago (Bizkaia). Mundu fisikoko jarduera (aldizkari inprimatua) Fundazioaren Egoitza Sozialetik zuzentzen eta lantzen da, nahiz eta Espainia osoan gauzatzen den (aldizkaria Estatu osoan banatzen da).

3.1.02. Jardueraren deskribapen xehea

1. Consumer Eroski aldizkariaren edukiak sortzea, lantzea, idaztea, maketatzea, inprimatzea eta banatzea, zeina hilerok argiratzen den (urtean 11 zenbaki, abuztuaren ez baita izaten), hilabete bakoitzean 125.000 alerekin. Kontsumitzaileari informazioa ematen dion aldizkaria da, eta informazio edukiak eskaintzen ditu (erreportajeak, artikulak, ikerketak, konparatiboak, kontsultak, elkarrizketak) kontsumo gaiei buruz (elikadura, elikagaien segurtasuna, osasuna, zuzenbidea, ekonomia, haurtxoa, maskotak, teknologia berriak, elkartasuna eta ingurumena).
2. Kontsumitzailea informatzeko edukiak sortzea, lantzea, idaztea, maketatzea eta digitalki kudeatzea. Eduki horiek www.consumer.es kontsumo atarian biltzen dira. Doako ataria da, eta lehen aipatu ditugun gaiei buruzko edukiarekin batean, Donejakue Bideari buruzkoak ere eskaintzen ditu.
3. Eroski Consumer proiektuaren profil sozialak mantentzea Facebook eta Twitter-en.

4. Eroski Consumerren aplikazio mugikorrak mantentzea.

3.1.03. Aurreikusi diren giza baliabideak

Honako giza baliabide hauek erabiltzea aurreikusi da jarduera hori gauzatzeko:

Giza baliabideak	Aurreikusia*
Soldatapeko langileak	0
Zerbitzu kontratua duten langileak	9
Langile boluntarioak	0

* Urteko lanaldi osoetan kalkulatu dira baliabideak.

3.1.04. Aurreikusi diren onuradunak edo erabiltzaileak

Honako hauek dira jarduera honen onuradunak edo erabiltzaileak, egin den aurreikuspenaren arabera:

Informazio produktuak	Aurreikusia
Onuradunak (kontsumitzaileak)	51.437.500
• Irakurleak	3.437.500
• Web erabiltzaileak	48.000.000

3.1.05. Aurreikusi diren helburuak eta adierazleak

Azkenik, honako helburu eta adierazle hauek aurreikusi dira:

Helburuak	Adierazlea	Aurreikusia
Audientzia (bisitak)	Web atariko bisitak	48.000.000
Aldizkari inprimatuaren audientzia (irakurleak)	Irakurle kopurua	3.437.500

3.3. Kontsumitzailearen prestakuntza

3.3.01. Jardueraren identifikazioa

Jardueraren izena	Kontsumitzailearen prestakuntza
Jarduera mota	Jarduera propioa (merkataritzaren arlotik kanpokoa), helburu soziala
Jardueraren identifikazioa sektoreka	Kontsumitzaileen sektorea
Jarduera egiteko lekua	Jarduera mundu digitalean egiten da (Interneten, www.escueladealimentacion.es atariarekin), eta mundu fisikoan ere bai (aurrez aurreko prestakuntza jarduerak). Eroski Fundazioaren egoitza sozialetik zuzentzen eta lantzen da Interneteko jarduera, zeina Elorrion baitago (Bizkaia). Mundu fisikoko jarduera (aurrez aurreko jarduerak) Fundazioaren Egoitza Sozialetik zuzentzen eta lantzen da, nahiz eta Espainia osoan gauzatzen den.

3.3.02. Jardueraren deskribapen xehea

Kontsumitzaileari kontsumo arduratsuaren inguruko hainbat gairi buruzko prestakuntza emateko kanpainak eta prestakuntza jarduerak sortu, landu eta gauzatzea (birtualak, Interneten, eta aurrez aurrekoak, mundu fisikoan), batez ere elikadura osasungarrian, elkartasunean eta ingurumenaren zaintzan oinarrituta.

Ikastetxeetan jarduera programarekin jarraitzea planifikatu da (*Hazteko energia* izena du), Lehen Hezkuntzako ikasleen elikadura orekatua eta aisialdi aktiboa sustatzen dituen. Horretarako, material didaktiko berria sortuko da ikasgelan erabiltzeko, aldeztu aurretik lankidetzak hitzarmenak sinatuz entitate adituekin, eta programari atxikitzea erabakitzen duten ikastetxeetako ikasleek aurrez aurreko tailerrak egiteko beste baliabide batzuk ere landuko dira.

Jarduera horretan gutxienez 250.000 ikasleek parte hartuko dutela aurreikusten da; COVID-19aren pandemiaren ondorioz, ohiko irismena murriztu egingo da, zailtasunak eragiten ari da-eta ikastetxeetako jardueran.

Tokiko eta eskualdeko nekazaritzako elikagaien inguruko ezagutza sustatzeko edukiak ere sortu dira, eta asmoa da horiei ere probetxua ateratzea ekoizpen lekuetara bisitak eginez eta zuzeneko bizipenak eskainiz ikasleei.

Programan sartuta dauden ikastetxeetako jantokiak ere prestakuntza emateko eta jarduerak egiteko erabiltzea aurreikusten da. Horretarako, erraztu egingo da eragile jakin batzuk programan sartzea (gizarte erantzukizunez jokatzeko catering enpresak).

Familientzako jarduerak ere landuko ditugu elikatzeko ohitura osasungarriak errotzeko, "Elikadura Eskola" proiektuaren testuinguruan, eta mundu digitalean zein aurrez aurrekoan egingo da hori. Aurreikusi diren giza baliabideak

Honako giza baliabide hauek erabiltzea aurreikusi da jarduera hori gauzatzeko:

Giza baliabideak	Aurreikusia*
Soldatapeko langileak	0
Zerbitzu kontratua duten langileak	5
Langile boluntarioak	0

* Urteko lanaldi osoetan kalkulatu dira baliabideak.

3.3.03. Aurreikusi diren onuradunak edo erabiltzaileak

Honako hauek dira jarduera honen onuradunak edo erabiltzaileak, egin den aurreikuspenaren arabera:

Informazio produktuak	Aurreikusia
Onuradunak (kontsumitzaileak)	250.000
A. Ikastetxeen bidez heziketa programari atxiki zaizkion ikasleak	250.000
B. Entitateak (hitzarmen bidez)	2

3.3.04. Helburu eta adierazle aurreikusiak

Azkenik, honako helburu eta adierazle hauek aurreikusi dira:

Helburuak	Adierazlea	Aurreikusia
Heziketa Planean parte hartu duten ikasleak beren ikastetxeen bidez	Ikasle kopurua	250.000
Lankidetzak hitzarmenak entitateekin	Entitate kopurua	2